

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Maria Victoria Arizmendi Azpiazu

*Bergara,
Gipuzkoa
(1924)*

Aurkibidea



Biografia



Barrenkalen jaioa. Aita Elgoibarkoa zuen, Untzon baserrikoa, ogibidez biajantea, eta ama Bergarakoa. Zortzi senide ziren. Ume-umetan ospitalean ibili zen, eta gero Enseñanza. Hantxe bertan kontabilitatea, takigrafia eta mekanografia ikasi zituen, partikular. Batxilerra egiteko beka eman zioten mojek, ikasteko balio zuelako; Donostian bukatu zuen batxilerra, eta Valladoliden egin zuen azterketa. Donostian atera zuen Magisteritza titulua, bere aldetik prestatuta. Etxean hasi zen klaseak ematen, eta gero akademia jarri zuen Lide Mujikarekin batera. Ikastola sortu zenean, bertako andereño bihurtu ziren biak. Ezkondu, eta seme bat eta alaba bat izan zituzten. Familia abertzalekoa.

Zintak

BER-324

- **Proiektua:** Bergarako emakumea eta lana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin - Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2013-01-25
- **Iraupena:** 70 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

BER-325

- **Proiektua:** Bergarako emakumea eta lana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin - Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2013-01-25
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

Pasarteak

1. Matematiketarako erraztasun handia

- **Erref:** BER-324/005

- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:08:25. **Bukatu:** 00:09:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

<p>Etxe barruko lanak egitea ez zen bere eginkizuna umetan. Baina eskolara ez zuten sekula faltatzen. Amak oso garbi zuen: bakoitzari bere bidea zabaldu behar zitzaion. Berak Matematiketarako erraztasun handia zuen.</p>

2. Enseñanzako ikasleen mailaketa klasistak herriaren izakera markatu du

- **Erref:** BER-324/006
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:09:30. **Bukatu:** 00:11:42
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

<p>Bergaran ez zegoen eskola publikorik neskentzat. Mojen eskolak betetzen zuen zuloa. Han hiru kategoriatako ikasleak zeuden: "Internak", "Mediapensionistak" eta "Externak". Barnetegian kanpotar asko egoten zen. Hiru mailak oso nabarmenak ziren, eta uste du horrek herriaren nortasuna markatu duela. Eibarren beste giro bat, beste elkartasun bat ezagutu du.</p>

3. Neska asko kolokatzen zen fabriketan Enseñanzako ikasketekin

- **Erref:** BER-324/007
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:11:42. **Bukatu:** 00:13:21
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

<p>Bera "externa" zegoen, baina klase partikularrak hartu zituen bertan amak bultzatuta: Kontabilitatea, Mekanografia eta Takigrafia. Irakasle onak zeuden. Ikasketa horiekin neska asko kolokatzen fabriketan.</p>

4. Magisteritza bukatu eta akademia sortu

- **Erref:** BER-324/009
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:13:52. **Bukatu:** 00:15:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

Internak bakarrik egin zezaketen batxillerra. Magisteritza amaitu zuenean ez zuen oposiziorik egin nahi izan, Arabako edo beste nonbaiteko herri txiki batera joateko gogorik ez zuelako. Horrela, Lide Mujikarekin elkartu eta akademia sortu zuten.

5. Batxillera eta Magisteritza bere kontura ikasi zuen

- **Erref:** BER-324/011
- **Iraupena:** 0:04:24. **Hasi:** 00:16:28. **Bukatu:** 00:20:52
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Ikasle ona zenez, Enseñanza beka bat eman zioten batxillerra ikasteko; hasi zen baina ez zebilen gustura. Gero, bere kasa, "por libre", Donostian eta Valladoliden egin zituen batxiller ikasketak, eta Donostian magisteritzakoak. Amaitutakoan ez zen presentatu oposizioetara, herri txiki batera bidaliko zuten beldurrez.

6. Magisteritza egindako emakumeak oso gutxi bere garaian

- **Erref:** BER-324/012
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:20:52. **Bukatu:** 00:23:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Ez du gogoratzen beste neska bergararrik magisteritza ikasten garai hartan. Eta oso bakanak dira bere adineko tituludunak. Mari Pilar Lonarbide horietako bat.

7. Akademia abian, Lide Mujikarekin batera

- **Erref:** BER-324/013
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:23:20. **Bukatu:** 00:26:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

Lide Mujikarekin batera jarri zuen akademia. Lehenengo Mizpildi kalean, Lasa jatetxearen aurrean gero. Erdaraz ziren gaiak, euskarazko materialik ez zegoelako, baina euskara asko erabiltzen zuten berbaz.

8. Ballet klaseak akademian

- **Erref:** BER-324/014

- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:26:10. **Bukatu:** 00:27:03
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

<p>Errusian egondako emakume eibartar bat ekarri zuten akademiara ballet klaseak emateko. Herriko ospakizunetan ere parte hartzen zuten</p>

9. Jaialdia antolatu zuten Novedadesen gor-mutuen alde

- **Erref:** BER-324/015
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:27:03. **Bukatu:** 00:31:03
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak

Laburpena:

<p>Apaizgaien eguneko ospakizunetan ere parte hartzen zuten akademiatik. Gor-mutuei laguntzeko zozketa bat eta jaialdi bat ere antolatu zituzten. Novedades-en egin zen jaialdia. Orduan ezagutu ziten Gorrotxategi eta Egileor bertsolariak. Lurdes Iriondok eta Urretxindorrek Taldeak ere abestu zuten. 70.000 pezeta batu zituzten.</p>

10. "San Martin de Agirre" eta "Santa Infancia", akademiaren izenak

- **Erref:** BER-324/017
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:33:18. **Bukatu:** 00:35:13
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

<p>"San Martin de Agirre" zen bere eskolaren izena. Inspektorearen beldur izaten ziren beti; gainera Lasanean egoten zen, euren eskolaren aurre-aurrean. Legezatzeko orduan, "Santa Infancia" izena jarri zion apaizak akademiari.</p>

11. Ikastola bateratua sortu aurretiko korapiloak

- **Erref:** BER-324/019
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:36:32. **Bukatu:** 00:39:45
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

<p>Bazen herrian ikastola sortzeko mugimendua. Talde batek, Don Serafin

eta Linazisorotarrak buru, futbol partidua antolatu zuten. Baina Maria Victoriaren akademiarekin kontatu gabe. Gaizki ulertuak eta tentsioa.</p>

12. Hasierako bi ikastolatxoen arteko konponezinak

- **Erref:** BER-324/020
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:39:45. **Bukatu:** 00:41:55
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

<p>Konbenio kalean sortu zen ikastola berria. Akademiaren tarifa berdinak zituzten, nahiz eta gastuak txikiagoak izan. Andereñoak titulu gabeak ziren. Akademiakoek ez zuten arazorik jarri haiekin elkartzeko hasiera hasieratik.</p>

13. Ikastolatxo biak bat eginda Seminarioko lokaletara

- **Erref:** BER-324/023
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:48:36. **Bukatu:** 00:49:46
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

<p>Gurasoak konturatu ziren tontokeria zela bi ikastola batera egotea. Seminarioa ere hutsik geratu zen institutua sortu zenean, baina fraideek baldintza bakarra zuten lekua uzteko: bi ikastolak batuta joan behar zutela. Eta horrela abiatu zen Bergarako Ikastola (1971).</p>

14. Ehun bat haurrekin abiatu zen Bergarako Aranzadi Ikastola

- **Erref:** BER-324/024
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:49:46. **Bukatu:** 00:50:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

<p>Laurogei bat ume eraman zituen Maria Victoriaren akademiak ikastola berrira; besteak, askoz ere gutxiago, aurre eskolako pare bat gela edo. Biak bat egin zutenean amaitu ziren istiluak.</p>

15. Gabonetan eta Santa Ageda bezperan kantura

- **Erref:** BER-324/027
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:57:23. **Bukatu:** 00:59:28
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

<p>Julen Lekuonaren etxera ere joan ziren. Gero kantura ekarri zuten Bergarara. Santa Agedatan ere irten ziren eskera. Batutako dirua Moja Zaharrei eman zieten. Gabon batzuetan sekulako hotzarekin irten ziren kantura.</p>

16. Hondarribian Matematikako euskal terminologia ikasten

- **Erref:** BER-324/030
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 01:03:35. **Bukatu:** 01:04:48
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

<p>Hasieran Xabiertxo liburua erabiltzen zuten, eta berbazko harremanak euskaraz ziren gero eta gehiago. Maria Victoria hamabost egunez egon zen Hondarribian matematikako euskal terminologia ikasten.</p>

17. Eskola liburu guztiak erdaraz, Xabiertxo izan ezik

- **Erref:** BER-324/032
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 01:06:42. **Bukatu:** 01:07:38
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

<p>Erdaraz zeuden akademian erabiltzen zituzten batxillerreko liburuak. Euskaraz Xabiertxo, eta ia beste ezer ez. Elvira Zipitriaren metodologia ez zen Bergarara heldu.</p>

18. Maria Txantxotek ez zuen eskolarik eman gerra ostean

- **Erref:** BER-324/034
- **Iraupena:** 0:00:33. **Hasi:** 01:09:10. **Bukatu:** 01:09:43
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

<p>Maria Oiangurenek ("Maria Txantxote") ez zuen eskolarik eman gerra ostean. Aurretik bai, Errepublikaren denboran sortu zen ikastolan.</p>

19. Pospolina izan zen gerra aurretik

- **Erref:** BER-325/002

- **Iraupena:** 0:00:38. **Hasi:** 00:00:05. **Bukatu:** 00:00:43
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

<p>"Pospoliña" izan zen gerra aurretik Maria Victoria. Batzokian ikasten zituzten dantzak. Karmelo zen erakuslea. Gerra ostean han sartu zirenean, Jose Antonio Primo de Riveraren argazki handi bat aurkitu zuten.</p>

20. Batzokia eta Emakume Abertzale Batza

- **Erref:** BER-325/004
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:01:06. **Bukatu:** 00:03:27
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Emakumeak politikan
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:

<p>Amenabar ahizpak, Azkaratenekoak, Maria Ojanguren, Idarretanekoak, Zabalanekoak... ziren batzokiko martxa eramaten zuten emakumeak. Emakume Abertzale Batzaren burua, berriz, Rafaela Ezpeleta, Guenetxe okindegikoa. Gero moja joan zen. Idazkaria, Bitxori Oregi.</p>

21. Beren autobusari harrika Tolosan

- **Erref:** BER-325/006
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:03:36. **Bukatu:** 00:05:28
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

<p>Pospolina zela, behin Donostiara joan ziren jaialdi batera. Itzuleran Tolosatik pasatzean, harrika egin zioten bere autobusari. Mutil batzuk, Ardatxanekoak tartean, makilekin jaitsi eta uxatu zituzten harrikariak.</p>

22. Juste Amenabar, gerra aurreko eta ondorengo ekintzailea dantzan eta antzerkian

- **Erref:** BER-325/008
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:05:26. **Bukatu:** 00:06:57
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

<p>Juste Amenabar eta haren ahizpa oso aktiboak izan ziren gerra aurretik batzokian, dantza eta antzerki arloan batez ere. Gerra ostean ere bai, Txomin Amasorrainekin batera, antzerki taldean zein Urretxindorrek kantari taldeari laguntzen.</p>

23. Bi Santa Ageda kantu, bata karlistena eta bestea nazionalistena

- **Erref:** BER-325/010
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:08:30. **Bukatu:** 00:09:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak
- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda

Laburpena:

<p>Karlisten artean, Etxaniztarrek eta Basterra maisua nabarmentzen ziren. Santa Agedatan eskera irteten zirenean, bi kanta-doinu ezberdin erabiltzen ziren, bata karlistena eta bestea nazionalistena.</p>

24. Mutikoak falangista jantzita eta neskak kantineira

- **Erref:** BER-325/011
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:09:30. **Bukatu:** 00:10:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Jarrera politikoak » Falangistak

Laburpena:

<p>Gerra denboran, gurasoak ihes eginda zeuden, eta haien seme txikiak, berriz, falangista jantzita eta neskak kantineira ibili behar izan zuten herrian. Mezatarak joan behar zuten igandetan eta gero desfilea kalez kale.</p>

25. Vicente Telleriarteren hiru alaben izen argitsuak

- **Erref:** BER-325/013
- **Iraupena:** 0:00:37. **Hasi:** 00:10:55. **Bukatu:** 00:11:32
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Errepublikanoak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Bergarako errepublikano famatuena Vicente Telleriarte izan zen. Hiru alaba izan zituen, Sol, Aurora eta Luz, denak izen "argitsuak".</p>

26. Irratiaren historia

- **Erref:** BER-325/015
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 00:12:20. **Bukatu:** 00:15:21
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:

<p>Bergaran geratu zen familia osoa, hamaika kide. Aitaren lagun karlista batek irрати handi bat saldu zion. Amak errezelo handiz ikusi zuen hura, negozio zikinen batean sartuta ote zegoen. Hurrengo egunean kendu zioten, militarren bati emateko.</p>

27. Senarra izango zena ihesi gerra denboran

- **Erref:** BER-325/016
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:15:21. **Bukatu:** 00:16:33
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Gogoan du zela plazan emakumeak ikusi zituen eskuan zartaginak zituztela, ihesi irtetear zeudela. Senarra izango zena ihesi ibili zen gerra denbora guztia. Eibarren, Gernikan, Frantzian...</p>

28. Elgetako frontearen aurrez aurre etxea

- **Erref:** BER-325/017
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:16:33. **Bukatu:** 00:19:35
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Eskolak jarraitu egin zuen gerra denboran. Bonbardaketak zirenean etxepera jaisten ziren. Bi soldadu etxean hartzera behartu zituzten. Ofizial alemanak ere egon ziren, baina denbora gutxi, beldurtu egin zirelako, frontea aurrez aurre zegoela ikusita. Elgetatik beren etxeko leihoan arropak eskegita ikusten ei zituzten gudari bergarrek.</p>

29. Emakumeak zartaginak hartuta, ihesi

- **Erref:** BER-325/018
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:19:35. **Bukatu:** 00:21:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Hainbat lekutan babesten ziren bonbardaketak hasten zirenean. Arrosarioa errezatzen zuten. Batzuk beldurtiak ziren eta beste batzuk ez, beren amama, esaterako. Katua beldurtiena. Emakumeak zartaginak hartuta, ihesi abiatzeko orduan, buruan iltzatuta geratu zaion irudia.

30. Ondasunen lapurreta gerra denboran

- **Erref:** BER-325/020
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:22:04. **Bukatu:** 00:23:55
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera

Laburpena:

Gizonaren familia gerra ostean etxera itzuli zenean, etxeko gauza gehienak falta ziren, jende ezagunak harrapatuta. Autoa ere kendu eta Bergarako familia bati saldu zioten.

31. Aita Ondarretako kartzelan bederatzi egunez

- **Erref:** BER-325/022
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:24:02. **Bukatu:** 00:25:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Aita Ondarretako kartzelara eraman zuten. Mugitzen hasi ziren eta bederatzi egun eginda askatu zuten. Geletan ez zuten etzateko lekurik ere. Txarrena gauak ziren, fusilatzeke presoek bila etortzen baitziren.

32. Aitak ez zuen nahi izan kartzelatik gauez irteterik

- **Erref:** BER-325/023
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:25:00. **Bukatu:** 00:28:05
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Ondarretako kartzelan zegoela, iluntzean etorri zitzaizkion aitari aske utzi behar zutela esanez. Hurrengo goizean nahiago zuela, berak. Izan ere, beldur zen iluna aprobetxatuz edozer gauza gertatuko ote zitzaion. Askatu eta gero, Arantzazura joan zen bederatzi egunez Ama Birjinari eskerrak ematera.

33. "Oración por España" txikitu zueneko

- **Erref:** BER-325/027
- **Iraupena:** 0:05:53. **Hasi:** 00:29:37. **Bukatu:** 00:35:30

- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

<p>Elizan, arrosarioaren ondoren, "Oraciôn por España" egiten zen. Buruz errezitatzen du. Behin, Maria Victoriak elizan sartu eta otoitzaren papera txikitu zuen. Handik urte batzuetara apaizen buruari, Don Ceferinori, Francozale amorratua, gutuna egin zion ekintza aitortuz, baina sinatu gabe. Abadeak bildu eta otoitza alde batera uztea erabaki zuten. Azkenik, apaiz bati aitortu zion, baina konfesioko sekretupean.</p>

34. Akademiaren hasierak

- **Erref:** BER-325/029
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:36:36. **Bukatu:** 00:38:05
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

<p>Peña dentista eta Don Pepe abadea ere tartean zien akademia sortu zutenean. Don Pepek latina ematen zuen. Asko erregutu behar izan zitzaion lana onar zezan. Peñak zientziak ematen zituen.</p>

35. Peña dentistaren emaztea eta seme-alabak Madrilera ikasketak egitera

- **Erref:** BER-325/033
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:46:22. **Bukatu:** 00:47:24
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Peña dentistaren seme-alabak izan ziren karrera hartu zuten bergarar bakarrenetarikoak. Madrilera aldatu zen familia amarekin, aita Bergaran utzita.</p>

36. Don Roman medikuaren alaba, Bergarako lehen emakume karreraduna

- **Erref:** BER-325/036
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:50:18. **Bukatu:** 00:51:23
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

Laburpena:

<p>Don Roman Oiarzabal medikuaren alaba izan ei zen Bergarako lehen emakume karreraduna. Familia oneko alabek ez zuten goi mailako ikasketarik egiten; pianoa, pintura eta horrelakoak ikasten zituzten.</p>

37. Herriko ile-apaindegiak

- **Erref:** BER-325/038
- **Iraupena:** 0:03:28. **Hasi:** 00:52:04. **Bukatu:** 00:55:32
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

<p>Ile-apaindegiak. Maria Victoriaren gizonaren arrebak Barrenkalen egiten zuen. Camacho farmaziaren gainean beste bat zegoen. Familia bati buruzkoak. Sakristauaren emazteak, Agirre dendaren gainean zuen. Arruriaga kalean eta Altos Hornosen ere baziren.</p>

38. Don Roman medikua haurgintza lanetan bikaina

- **Erref:** BER-325/040
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:57:15. **Bukatu:** 00:58:06
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

Laburpena:

<p>Maria Victoria Don Roman Oiartzabal medikuarekin jaio zen. Oso ona ei zen. Bergara zen gerra aurretik haur jaio berrien hilkortasun txikiena zuen herria.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-02-26

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com